

## **Elgoibarko bideen inbentariora gehitzeko EH Bilduren proposamena**

Elgoibarko Udalak bide publikoen inbentarioaren katalogoa eguneratzeko prozesua hasi du. EH Bilduk ondorengo hauek proposatzen ditu martxoak 18ko Lurralde Batzorderako:

1- EH Bilduk otsaileko Lurralde batzordean proposatu zuenari jarraituz, honako bide-zerrenda hau proposatzen dugu, Sendo enpresari esleitutako lanean orain arte sartu ez badira, sartu ahal izateko:

- Bidezabal bidea (San Rokeetik Pagobedeinkatu bitartean)
- San Roke eta Agarre baserri ondotik Soraluzeako bidean Iturbe baserriraino
- Sagazurieta eta Ipintza baserri arteko bidea
- Elgoibartik Ipintza eta Arraitza baserrietatik Idotorbera bidea
- Urkaregitik-Hiruturri eta Kalamuara doan bidea
- San Pedrotik, Kortasoro-Urkitza-Irunagaberi eta Aubixaraino
- Sigmatik Saturixoraino (Eibarrera zihoan bidea)
- Otsurteagatik Sargoaten barrena Irukurutzetara joateko bidea
- Ballibarretik Altzola bitartekoa.
- Armaziotik Krabelin leporantz doana.
- Juanategitik Galbusoro eta Armuetazarren zehar Egiguren Txiki eta errepede artekoa.

2.-Elgoibarko hainbat bide publiko jasotzen dituen 1535. urteko Koredun Liburua ("Libro Colorado"), erreferentziatzen hartuta, bertan azaltzen diren eta inbentarioan gaur egun sartuta ez dauden bideak ere bertara gehitzeko lanketa burutzea.

3- Elgoibarren gai honekin zerikusia duten gizarte eragileen lankidetzaren sustatzea, herrian gehien ibiltzen diren edo ohikoenak diren bideen katalogoa egin dezaten, etorkizunean kontserbazio eta sustapen politikak garatzeko.